# Bestelako Xedapenak

## INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

**1876**

EBAZPENA, 2011ko otsailaren 25ekoa, Industria eta Energiako sailburuordearena; honen bidez, teknologia-oinarriko ETEak eta/edo berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen duen Aginduan ezarritako esparruan, 2011ko ekitaldirako laguntzak emateko deialdia iragartzen da.

Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2007ko maiatzaren 21eko Aginduaren bidez teknologia-oinarriko ETEak eta/edo berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen da (2007ko ekainaren 12ko EHAA, 112. zenbakia), eta 2007ko abenduaren 18ko beste Agindu baten bidez aldatu egin zen (2008ko urtarrilaren 29ko EHAA, 20. zenbakia).

Laguntza horiek emateko ekonomia-baliabideak abenduaren 23ko 5/2010 Legean ezarritako aurrekontu-partidetatik aterako dira, eta Lege horren bitartez, 2011ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dira.

Azaldutakoaren arabera, eta Agindu horren 12. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, bidezko da bertan finkatutako laguntzetarako deialdia egitea 2011ko ekitaldirako eta horretarako beharrezkoak diren arauak ematea.

EBATZI DUT:

***1. artikulua.***– Xedea.

Honako hau da ebazpen honen xedea: teknologia-oinarriko ETEak eta/edo berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak, itzuli beharreko aurrerakin gisa, 2011 ekitaldian emateko deialdia egitea.

Horretarako 26.000.000 euro bideratuko dira, 5/2010 Legean (abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena) ezarritako aurrekontu-partidetan esleitutako kredituen kargura.

Deialdi honen kontura emango diren diru-laguntzen guztizko bolumenak ez du gaindituko artikulu honetan ezarritako zenbatekoa edo zenbateko hori eguneratzetik ateratzen dena, indarreko legedian aurreikusitako kredituak lotzeko edo aurrekontuak

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

**1876**

RESOLUCIÓN de 25 de febrero de 2011, del Viceconsejero de Industria y Energía, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de ayudas para el ejercicio 2011, dentro del marco establecido por la Orden por la que se regula el programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de PYMEs de base tecnológica y/o innovadoras.

La Orden de 21 de mayo de 2007, de la Consejera de Industria, Comercio, y Turismo, regula el programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de PYMEs de base tecnológica y/o innovadoras (BOPV n.º 112, de 12 de junio de 2007), modificada por otra de 18 de diciembre de 2007 (BOPV n.º 20, de 29 de enero de 2008).

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para el ejercicio 2011.

Por lo expuesto, y de conformidad a lo establecido en el artículo 12 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas para el ejercicio 2011, dictando a tal objeto las normas necesarias,

RESUELVO:

***Artículo 1.***– Objeto.

Es objeto de la presente Resolución, la convocatoria, para el ejercicio 2011, de las ayudas, bajo la forma de anticipos reintegrables, previstas en la Orden por la que se regula el programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de PYMEs de base tecnológica y/o innovadoras.

Para este fin se destinará un total de 26.000.000 euros, con cargo a los créditos asignados en las partidas presupuestarias establecidas en la Ley 5/2010, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, para el ejercicio 2011.

El volumen total de ayudas a conceder con cargo a la presente convocatoria no podrá superar el importe consignado en este artículo o el que resulte de su actualización, conforme al régimen de vinculación crediticia o de modificación presupuestaria previsto

aldatzeko erregimenari jarraiki. Beraz, zenbateko hori agortzen denean ez da laguntza gehiago emango, eta xedapen honek une horretan bertan utziko dio eraginkorra izateari. Kasuan kasu, bi egoera horien berri jakinarazi behar da Industria eta Energiako sailburuordearen ebazpen bidez.

***2. artikulua.***– Eskakizunak.

Eskatzaileek, teknologia-oinarriko ETEak eta/edo berritzaileak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Industria programa arautzen duen Aginduan aurreikusitako laguntzak baliatzeko, erakunde onuradun izan beharko dute, 2007ko maiatzaren 21eko Agindu horretan ezarritakoari jarraiki.

***3. artikulua.***– Eskabideak eta epea.

1.– Era berean, eskabideak eta gainerako dokumentazio gehigarria Eraldaketa Lehiakorrerako Sozietatean (SPRI SA) –bulegoak Bilboko Urkixo zumarkaleko 36. zenbakiko 4. solairuan dituen erakundean– aurkeztuko dira, zuzenean edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean –urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoan– aurreikusitako edozein bidetik.

Eskabide-eredua eta formularioak Interneteko helbide honetan bete edota bertatik deskarga daitezke: www.spri.es/gauzatu.

2.– Eskaerak aurkezteko epea ebazpen hau argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta horretarako kreditua lehenago agortzen ez bada, 2011ko maiatzaren 13an amaituko da.

AMAIERAKO XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Ebazpen hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da indarrean.

***Bigarrena***.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko otsailaren 25a.

Industria eta Energiako sailburuordea,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.

en la legislación vigente. No procederá por tanto la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, suspendiéndose, a partir de ese momento, la eficacia de la presente disposición. En su caso, de ambas circunstancias se dará publicidad mediante resolución del Viceconsejero de Industria y Energía.

***Artículo 2.***– Requisitos.

Los solicitantes, para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden por la que se regula el Programa Gauzatu-Industria, de impulso a la creación y desarrollo de PYMEs de base tecnológica y/o innovadoras, deberán ostentar la condición de entidad beneficiaria, de conformidad con lo establecido en el artículo 3 de la citada Orden de 21 de mayo de 2007.

***Artículo 3.***– Solicitudes y plazo.

1.– Asimismo, deberán presentar las solicitudes y demás documentación complementaria en la Sociedad para la Trasformación Competitiva, S.A. (SPRI), cuyas dependencias se encuentran en Bilbao, c/ Alameda de Urquijo, 36, 4.ª planta, bien directamente o bien por cualquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

El modelo de solicitud y formularios se podrán cumplimentar y/o descargar en la dirección de Internet, www.spri.es/gauzatu.

2.– El plazo de presentación de solicitudes se iniciará el día siguiente al de la publicación de esta Resolución y, en tanto no se haya agotado el crédito consignado al efecto, finalizará el día 13 de mayo de 2011.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– La presente Resolución de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

***Segunda***.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo del Gobierno Vasco en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 25 de febrero de 2011.

El Viceconsejero de Industria y Energía,
FRANCISCO JAVIER GARMENDIA MARTÍNEZ.